

91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

28. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, AGIRIAK INPRIMATZEAGATIK ETA UDAL TELEZENTROKO ARETOA ALOKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

Oinarria.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Zergapeko egintza.

2. artikulua. Honako hau da ordenantza honetako zergapeko egintza: alderdi batek eskatuta Barañaingo udal telezentroan luzatzen diren agiriak inprimatzearen ondorioz eta/edo udal telezentroko aretoa erabiltzearen ondorioz garatzen den udal jarduera.

Ordaindu beharra.

3. artikulua. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da norbanakoek, beren intereserako, edozein agiri inprimatzeko edo/eta telezentroko aretoa erabiltzeko eskaera egiten dutenean.

4. artikulua. Interesdunak telezentroko aretoa erabiltzeari uko egin ahal izanen dio ekitaldirako ezarritako eguna baino bost egun natural lehenago, gutienez ere, eta, hala eginez gero, prezio publikoaren %50 itzuliko zaio.

Subjektu pasiboa.

5. artikulua. Inprimatzen diren agiriak eskatu, sorrarazi edo haien onura jasotzen duten pertsona natural nahiz juridikoak dira subjektu pasiboak, baita Udalak telezentroko aretoa erabiltzeko baimena nori ematen dion, norbanako horiek ere.

Tarifak.

6. artikulua. Aplikatu beharreko prezio publikoa ordenantza honen eranskinean agertzen da, edo kasu bakoitzean ezarriko da, egin behar diren jardueren ezaugarri bereziei jarraikiz, Barañainen erroldaturik egon ala ez.

Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.

7. artikulua. Zerbitzu horiek (agiriak inprimatzea eta telezentroko aretoa alokatzea) Barañaingo udal telezentroan ezarritako ordutegiaren arabera emanen dira. Barañaingo udal telezentroak, ordutegi horren barnean, laguntza ematen du, kontsulta zehatzak erantzuten eta ekipamendua nahiz zerbitzuak erabiltzeari buruzko zalantzak argitzen.

8. artikulua. Ekipamenduak arduragabekeriaz edo behar ez bezala erabiltzeagatik hautsi edo hondatzen badira, erabiltzaile arduradunen kontura konponduko dira.

9. artikulua. Inprimatze lana egitean edo telezentroa erabiltzeko lagapena ofizialki lagatzen denean ordainduko da prezio publikoaren zenbatekoa.

10. artikulua. Udalak kasuan-kasuan ezarritako moduan eta tokian eginen da diru-bilketa.

2020KO TARIFEN ERANSKINA - 152. NAON ARGITARATUA 2020KO UZTAILAREN 13A

I. epigrafea.–Agiriak inprimatzea, norbanakoek eskaturik.	
a) Din A-4 tamainako kopia bakoitzeko:	
–0-5 inprimatze lan.	0,10
–5 inprimatze lan baino gehiago.	0,06
II. epigrafea.–Hainbat.	
a) Proiektuen kopiak, CDan:	Dohainik
b) Eskaner zerbitzua.	Dohainik
III. epigrafea.–Telezentroko aretoa alokatzea.	
–Ordubetez erabiltzeko prezioa.	20,20
–Fidantza.	Erabileraren %20
Barañaingo Udal Telezentroko aretoa erabili ahal izateko, gutenez ere 15 egun lehenagotik egin beharko da eskaera, eskabide baten bitartez egin ere.	
Udalaren organo eskudunak aretoaren erabilera baimendutakoan, behar den udal ordenantzak ezartzen duen zenbatekoa ordainduko da, alokairutako, eta fidantza utziko da bai konponketetarako bai garbiketarako. Fidantzak aretoaren eta ekipamendu informatikoen egoera frogatu ondotik itzuliko dira, konponketei eta/edo garbiketei dagokien zenbatekoa kenduta, halakorik egin behar izanez gero.	